

DIRU SARRERAK

Hasteko, diru sarrerak zenbatekoak izango diren kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira zeintzuk diren gure diru sarrera nagusiak, lortu ahal ditugun diru laguntzen ponderazioa eta zenbatekoa den hasieran behar dugun kapitala.

Lehenengoz, proiektuaren diru-sarreraren gehiena, mahai-jokoaren salmentekin parekatzen da. Salmentarekin lortutako sarrerak, garraioa kontuan hartu barik, jokoaren salmenta bakoitzeko, honen prezioaren 75%-koa izango litzateke. Puntu honetara ailegatu gara, sektorearen erostearen/ekoiztearen kostuak kontuan hartuz. Gure jokoa ekoizteko enpresek (PinbroGames eta WahStudios) ez dutenez gure email-a erantzun, beste mahai jokoen prezioekin konparatu dugu 2020Attack. Horrela, prezio estimatu bat atera dugu, eta konturatu gara batez besteko ekoizpen kostua sektorean, amaierako prezioaren 25% eta 20% artean kokatzen dela. Beraz, diferentzia, gure irabaziak izango litzateke.


Jarraitzeko, hainbat diru laguntza lortu ditugu:

DIRU-ITURRIAK

PROGRAMA APOYO
9,1%

IMIO
45,5%

ENISA
45,5%



ENISA: 25.000 euroko diru-laguntza da. Gazteek sortu berri dituzten ETEei (eta startup-ei) beharrezko finantza-baliabideak ematea, enpresa-proiektuak hasierako fasean behar dituen inbertsioei ekiteko du helburu. Halaber, 40 urtetik beherako

gazte ekintzaileak, ekintzailetza berritzaileko proiektuak dituztenak. Enisaren diru-laguntza lortzeko hainbat baldintza daude:

- ETE bat izatea, Europar Batasunaren definizioaren arabera.
- Zure enpresa, gehienez ere, eskaera egin aurreko 24 hilabeteetan eratu izana.
- Zure negozio-eredua berritzailea izatea, edo lehiatzeko abantaila nabarmenak izatea.
- Kapitalaren gehiengoa 40 urtetik beherako pertsona fisikoen esku egon behar du.

SAREKIN E-WEEK: Gure produktua aurrera ateratzen lagunduko diguten beka askorik aurkitu ez dugun arren, gure produktua finantzatzeko metodoak bilatuz, jakin dugu aurten Bizkaian laguntza ekonomikoa ematen duten erakundeekin (Sarekin Week) harremanetan jarriko den ekitaldia egingo dela. Horregatik pentsatu dugu aukera bat dela inbertitzaile posibleek gure produktua ikus dezaten, eta agian harekiko interesa izan dezaten. Gainera, gurekin interes bera duten beste ekintzaile batzuekin topo egiteko aukera dago, aukera eta lankidetzak berriak sor ditzaketena.

IMIO: Finantzaketa zailtasunak dituzten emakumeentzako abalik gabeko mikro kredituak eskaintzen ditu, La Caixa eta Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutuaren (IMIO) arteko hitzarmen baten bidez.

- Finantzaketa-mota: 25.000 eurorainoko mailegua, abalen beharrik gabe, 6 urteko amortizazio-epearekin eta 6 hilabeterako aukerako gabealdiarekin.
- Onuradunak: 5 urtetik beherako epean hasitako enpresa-proiektuak finkatu edo hedatu nahi dituzten emakumeak, edo oraindik jarduerari ekin ez dioten emakumezko ekintzaileak.
- Baldintza nagusiak: onuradunek zailtasunak izan behar dituzte (ekonomikoak edo sozialak) finantza-sistema tradizionalaren bidez kreditu bat lortzeko. Enpresen kasuan, kapital soziala eta administrazioa emakumeei dagokie, % 50etik gora.

PROGRAMA DE APOYO FINANCIERO A PEQUEÑAS Y MEDIANAS EMPRESAS, PERSONAS EMPRESARIAS INDIVIDUALES Y PROFESIONALES AUTÓNOMAS DE 2021 PARA RESPONDER AL IMPACTO ECONÓMICO DEL COVID-19: Hau, ETEen gastu finkoetarako laguntza da. Laguntza hauek eskuratzeko baldintzak hauek dira:

- 250 langile baino gutxiago izatea
- Urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
- Beste enpresa batek zuzenean edo zeharka %25eko edo gehiagoko partaidetza ez izatea.

Laguntzaren zenbatekoa 5.000 eurotik 1.000.000 eurora bitartekoa da.

Beraz, hauek kontuan hartuta, Enisa diru-laguntza izango da hasieran salduko dugun produktua ekoizteko erabiliko duguna, 25.000 euro ematen baititu eta emango diguten serguruena da.

Diru-laguntzekin (55000€ gehienez) lokal bat ireki eta alokairua ordainduko dugula aurreikusten dugu, lokal txikia izango baita. Gainera, Eguberrietako kanpaina batean inbertitzeko asmoa dugu, mahaiko jokoak egun horietan asko eskatzen den oparia denez, asko salduko baitira. Ez hori bakarrik, baizik eta urtebeterako bekei esker, negozioa ireki behar duten gastuak, publizitatekoak eta ekoizpenekoak ordaindu ahal izango ditugu. Pandemiaren ondorioz jokoak famatua egingo dela kontuan hartuta, hiru bekek eskaintzen duten diru guztia behar ez izateko adina salmenta lortuko ditugu. Nolanahi ere, diru hori etorkizunean proiekturen berrikuntzarako inbertitu ahal izango dugu.

Kontuan hartuta berri honen ehunekoak, pandemia urtean %18,3 salmentak igo direla, pentsatuta dugu gure salmentak urte honetan altuak izango direla kontuan hartuta enpresa berri eta txiki bat garela. Espainiako mahai-jokoaren salmenta gero eta handiagoa da. Espainiako Jostailu Fabrikatzaileen Elkartearen arabera, pandemian, mahai-jokoaren kontsumoa %18,3 igo zen iaz, eta 120.000 kopia inguru saldu ziren Espainian. Hori dela eta, gure salmentek ere gora egingo dutela kalkulatu dugu. Nabarmena da, halaber, “Virus” jokoaren salmentak hazi egin direla, jokoak

Espainiako egoerarekin zerikusia duelako. Horregatik, bezero asko erakartzen ditugure jokoak, haiek bizi izan dituzten gertaeretan oinarrituta baitago.

KOSTEAK:

Erostearen/ekoiztearen kostuak kontuan hartu behar ditugu. Nahiz eta ez PinbroGames ez WahStudios gure email-a ez erantzun, beste mahai jokoen prezioekin konparatu dugu 2020Attack. Horrela, prezio estimatu bat atera dugu, eta konturatu gara batez besteko ekoizpen kostua sektorean, amaierako prezioaren 25% eta 20% artean kokatzen dela. Hori dela eta, sektorearen batez besteko erosotearen/ekoiztearen kostua 6 eurokoa da, batez besteko prezioa 30 euro baita. Hala ere, kontuan hartuz gure jokoak dituen berezitasunak 7,49 euroko erostearen/ekoiztearen kostuak kalkulatu ditugu.